


EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

Sra. Polarowska

Ez dago adinik erritmorako



Sra. Polaroiska kolektiboak *No hay edad para el ritmo* instalazioa parte hartzera gonbidatzen gaitu. Hor, azken ikus-entzunezko pieza proiektatuko du, No hay nada más moderno que envejecer, eta gailu bat proposatuko du, adin guztietako jendeak aukera izan dezan belaunaldien arteko dantza kolektibo eta familiar batez gozatzeko.

Mugitzen ari diren gorputzak begiesteko gonbidapen bat da. Denboraren iragaitzak zizelkatutako edo zizelkatu gabeko gorputzak, denak desberdinak, amodioa, desira, edertasuna, sexua, dibertsioa eta txerak aipatzen dituen dantza bat eraikitzen. Sentitzen, dardaratzen eta orainaldian bizitzen mugitzen diren gorputzak. Ehundurak, larruak eta erritmoak, beren eskubidez eta plazer hutsez gozamenaren arnasten.

Proposamen honen bidez, zalantzan jarri nahi da zenbait kanonen eraikuntza, aurreiritziz eta estereotipoz beterik dagoen imaginario soziala eta kulturala desmuntatzeko. Ez dago adinik erritmorako, beraz, goza dezagun une bakan batez, dantzatzeko plazer hutsez.

////////////////////////////////////

Ekainak 8, larunbata

18:00-20:00

Lantegia 1

**4€ / 3€ Az txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta www.azkunazentroa.eus**

////////////////////////////////////

 <http://cargocollective.com/srapolaroiska>

 [#srapolaroiska](https://www.instagram.com/srapolaroiska)

 vimeo.com/sra_polaroiska

////////////////////////////////////



SRA POLAROISKA Alaitz Arenanak Eta Maria Ibarretzek Eratzen Dute Sra Polaroiska. Beren obrak zinema esperimental, ekintzako artea,

eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egiten duten jardueraren onespenez gisa.

Arte-zentro eta nazioarteko jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: Artium Museoa, Reina Sofía Museoa, Guggenheim Museoa, Stockholmeko Cervantes Institutua, Manchester, Parisko Festival des Cinémas Différents, Casa Encendida, Bilbao Arte Fundazioa, eta abar...

////////////////////////////////////

Sra. Polaroiska Azkuna Zentroko artista elkartu bat da. Sorkuntza bultzatzeko programa honek laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza artistikoei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei. Informazio gehiago 11. orrialdean.